Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 2a, asteartea — 63 — Martes, a 2 de abril de 2019



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA

*441/2019 Foru Agindua, apirilaren 1ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Ereñotzu eta Itziar toki-entitate txikietako auzo-alkateak aukeratzeko hauteskundeak deitzekoa.*

Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 199. artikuluak xedatzen duenez, udalerriarena baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundeetako organoen hauteskunde-araubidea horiek aitortzen edo sortzen dituzten autonomia-erkidegoetako legeek ezarritakoa izango da; eta halakorik ezean, aipatu artikuluan jasotakoa.

Horri buruz, Hauteskunde Batzorde Zentralak 2019ko urtarrilaren 23ko Erabakian ulertu du ezen hauteskunde bidez aukeratu beharreko organoak dituzten lurralde-erakundeak sortzeko eskumena bereganatu duten heinean, autonomia-erkidegoei dagokiela hauteskunde horiek deitu eta kudeatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak eta Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bere Lurralde Historikoetako foru erakundeen arteko harremanak arautzeko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak ezarritako eskumenen banaketaren ondorioz, beren lurralde-eremuko udal mugapeen inguruko eskumen osoa daukate foru erakundeek.

Eskumen hori baliatuz eman zen Gipuzkoako Udal Barrutiak erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Araua; eta bere III. tituluan jaso zen udalerriarena baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundeei buruzko arauketa, zehazki, horiek sortzeko baldintzak eta prozedura. Aitzitik, erakundeon gobernu-organoei nahiz hauteskunde-araubideari buruzko xedapenik ez dago aipatu foru arauan.

Araudi horren babesean, nortasun juridikodun bi toki-entitate txiki dauzka Gipuzkoako Lurralde Historikoak: Hernanin Ereñotzu eta Deban Itziar; eta bi kasuetan, eratzeko foru dekretuek ondorengo gobernu organo hauek ezartzen dituzte:

a) Auzo-alkatetza, kide bakarreko organo gisa.

b) Auzo-batzordea, kide anitzeko organo gisa: auzo-alkateak eta 4 kidek osatua.

Gobernu organo horiek hautatzerakoan, Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 199. Artikulua aplikatu behar da. Horren arabera, auzo-alkatea toki-entitate txikiko auzotarrek hautatzen dute zuzenean, gehiengoko hauteskunde-sistema erabiliz aurkeztutako hautagaien artean; Auzo-batzordeko kideak izendatzeko, berriz, kontuan hartzen dira toki-entitate txiki horrek barne hartzen dituen hauteskunde-atal edo ataletan udal hauteskundeetarako izandako emaitzak.

Horiek horrela, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA Y COMUNICACIÓN CON LA SOCIEDAD

*Orden Foral 441/2019, de 1 de abril, de convocatoria de elecciones en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a las Alcaldías Pedáneas de las entidades locales menores Ereñotzu e Itziar.*

De conformidad con el artículo 199 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, el régimen electoral de los órganos de las entidades locales de ámbito territorial inferior al municipio será el que establezcan las leyes de las comunidades autónomas que las instituyan o reconozcan; y, en su defecto, será el previsto en el citado artículo.

A este respecto, la Junta Electoral Central, en su Acuerdo de 23 de enero de 2019, ha considerado que, en la medida en que las comunidades autónomas han asumido la competencia de creación de nuevas entidades territoriales cuya composición y organización requiere la celebración de elecciones, les corresponde igualmente a ellas la competencia en materia de convocatoria y gestión de estos comicios.

En la Comunidad Autónoma de Euskadi, de acuerdo con el reparto competencial establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, corresponde a estos últimos la competencia exclusiva en materia de demarcaciones municipales que no excedan de su ámbito territorial.

En ejercicio de esta competencia, se dictó la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, cuyo título III está dedicado a las entidades de ámbito territorial inferior al municipio, en concreto, a los requisitos y procedimiento para su constitución, sin que contemple ninguna disposición relativa a los órganos de gobierno ni a su régimen electoral.

Al amparo de esta regulación, el Territorio Histórico de Gipuzkoa cuenta con dos entidades locales menores con personalidad jurídica propia: Ereñotzu en Hernani e Itziar en Deba, cuyos respectivos decretos forales de creación establecen los siguientes órganos de gobierno:

a) La Alcaldía Pedánea, como órgano unipersonal.

b) La Junta Vecinal, como órgano colegiado, compuesta por el alcalde o alcaldesa pedánea y cuatro vocales.

Para su elección, es de aplicación el artículo 199 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, según el cual, las y los alcaldes pedáneos son elegidos directamente por los y las vecinas de la entidad local de que se trate, por sistema mayoritario, entre las candidaturas presentadas; mientras que la designación de los y las vocales de la Junta Vecinal se hará de conformidad con los resultados de las elecciones para el ayuntamiento en la sección o secciones constitutivas de la entidad local menor.

Por cuanto antecede, en uso de las atribuciones que a este diputado foral le confieren el artículo 1.1.f) del Decreto Foral

EK\CV GAO-I-2019-02115

buruzko urtarrilaren 31ko 7/2017 Foru Dekretuak 1.1.f) artikuluan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.1.d) artikuluan foru diputatu honi emandako ahalmenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Hauteskundeen deialdia eta data.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Ereñotzu (Hernanin) eta Itziar (Deban) toki-entitate txikietako auzo-alkateak aukeratzeko hauteskundeak deitzen dira: 2019ko maiatzaren 26an egingo direnak, Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 199. Artikuluan xedatutako baldintzetan.

*Amaierako xedapen bakarra. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2019ko apirilaren 1a.—Imanol Lasa Zeberio, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatua. (2115)

7/2017, de 31 de enero, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, y el artículo 40.1.d) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

DISPONGO

*Artículo único. Convocatoria y fecha de celebración de las elecciones.*

Se convocan elecciones en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a las Alcaldías Pedáneas de las entidades locales menores Ereñotzu en Hernani e Itziar en Deba, que se celebrarán el próximo día 26 de mayo de 2019, en los términos previstos en el artículo 199 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General.

*Disposición final única. Entrada en vigor.*

La presente orden foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 1 de abril de 2019.—El diputado foral del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, Imanol Lasa Zeberio. (2115)

EK\CV GAO-I-2019-02115